



Amestuz diseinatzen

Herritarren Parte-hartzeko Eredua Berrikusteko Prozesuaren hirugarren fasean, parte hartzeko modu berri bat izan dugu. Txantilo batean bildu ditugu partaideek bigarren fasean adierazitako erronkak eta txantilo horren bidez eskatu diegu "diseina ditzatela amestuz" gure udalerrian etorkizunean izango diren agertokiak haien talde eta elkarteekin batera. Hau da, parte-hartzea prozesutik harago zabaldu dugu.

Emaitza: 12 elkartek, 16 udal-zerbitzuek eta 4 talde politikok gaiaren inguruko hausnarketa partekatu dute. Guztira 130 pertsonak hartu dute parte esperimentuan.

Etorkizuneko aukerak ezarri nahi genituen, xedeak zehaztu, helburu orokorrak lortzeko bidean urratsak eman eta etorkizunerantz lan egiteko moduetarako irizpideak planteatu. Ez da ahalegin makala krisi-garaian amets egitea, baina egin dugu eta horrek erakusten du eszeptizismoa, zailtasunak, denbora-falta, esperientzia txarrak eta mesfidantza gorabehera, oraindik ere arlo guztietan daudela herritarren parte-hartzearen baitako elkarrizketaren bidez taldeko lanean, erantzukidetasunean, zeharkako lanean eta aldatzeko eta hobetzeko aukeran sinesten duten pertsonak.

LABURBILDUZ

Hasierako diagnostikoan gertaerei, arazoei eta erronkei lotuta adierazitako guztiaren ildotik, zer planteatu dezakegu orain arte egindakoari buruz "Disoñamos" ekimenetik abiatuta?

Hiru elementu bildu ditugu ekarpenetan:

- **ETORKIZUNEN AGERTOKIAK/XEDEAK**, urratsak zer norabidetan eman nahi ditugun.
- **HELBURUAK**, egin daitezkeen ekintza zehatzak zehazten dituztenak.
- **IRIZPIDEAK** edo baldintzak, aurrera egitean kontuan hartu beharrekoak.

Ekarpenak errazago jaso eta irakurtzeko, ekarpenen dokumentuan hasierako 16 erronken eskemari eutsi diogu. Hala ere, kontuan izan behar da planteatutako gai asko elkarri lotuta daudela.

Ekarpenak sakon aztertu gabe eta bakoitza bere tokian kokatzeko, ekarpenen oinarritzko alderdiak honako hauek direla uste dugu:

- . **Parte-hartzea elementu estrategiko gisa:**



Oraindik ere uste dugu gauzak benetan aldatuko direla erabakitzeko legezkoatasuna duen maila politikoak herritarren gaitasunak eta jakintza-kapitala eta parte-hartzearen onurak aitortzen dituenean.

Parte-hartzea estrategikotzat hartzea alderdi askotatik garatzen da:

- . Herritarren ekarpenek Udalbatzako Batzordeetan edo Udalbatzan bertan oihartzuna izatea.
- . Udalean egunero komunikatzeko "eduki" bihurtzea parte-hartzea.
- . Talde politikoek haien programetan arlo honetako ekintzak egiteko proposamen zehatzak sartzea.
- . Mota guztietako baliabide egokiak eta nahikoak izatea herritarren parte-hartzea bideratzeko.
- . Eragileen jarrera aldatzea, batez ere, politikakoena: begirunea pertsoneri, erakundeei eta ezarritako joko-arauei eta, proposatutako ekimenei zein herritarren eskaerei lotuta, entzuteko eta hitz egiteko borondatea eta erantzun sinesgarriak eta arrazoituak emateko gaitasuna.
- . NORBAITENTZAT gobernatzetik NORBAITEKIN gobernatzera igarotzea.
- . Parte-hartzea udal-politika guztien kudeaketaren funtsezko elementutzat hartzea.

- . Parte-hartzea eskubide

Herritarren aldetik, denek defendatzen dute parte hartu nahi duten guztiek izan behar dutela horretarako aukera. Horretarako, eta bakoitzaren egoera pertsonala, bizitzeko eta lanerako erritmoa eta dibertsitatea kontuan hartuta, administrazioak baliabideak jarri behar ditu erronka honetan aurrera egiteko.

Partaide gehienek azaldu dute garrantzitsua dela pertsonen banaka, taldean eta abar parte hartzeko aukera izatea. Baina ez dute zehaztu "nola" jar dezaketen hori praktikan (zer bide zehatzetan, botoa emateko zer aukerarekin, etab.).

- . Maila guztietan gardentasuna izatea funtsezko elementua da:

- . Udal-politika guztiei buruzko informazio argia eta egokia parte hartu ahal izateko.
- . Aurrekontuak ezagutzeko eta aurrekontuak egitean ekarpenak egiteko aukera.
- . Diru-laguntzen, hitzarmenen eta kontratuen kudeaketa garbi eta garden bihurtzeko beharra.
- . Onura partikularretarako erabiltzen diren "aldebiko" bideak ezabatzea. Denen onerako aritzea, lanean, elkarrizketan eta taldearen adostasunean oinarrituta.
- . Elkartearen ordezkagarritasuna irizpide objektiboetan oinarrituta zehazteko eta ekarpenak ere irizpide horien arabera neurtzeko



beharra, ordezkaritza txikia duten elkarten jabetze subjektiboak saihestuz.

- . Taldeko akordioa oinarrizko kontzeptuetan:

Definizio adostua (eragileen artean ondorioetara iristeko lanean aritu garelako) eta partekatua (eguneroko egitekoan txertatzen delako) lortzea da helburua.

- . Oinarrizko kontzeptuak
- . Parte hartzeko bideak
- . Proposamenen ibilbidea
- . Jarduera-irizpideak
- . Eragileen funtzioak eta egitekoak

- . Kalitatearen bermeak

Seguru asko, aurretik egindako ibilbidea, esperientzia txarrak eta eszeptizismoa daude partaidetza bermatzeko eta ez baztertzeko, manipulatzeko edo gutxiesteko kontrol-mekanismoak behar izatearen atzean.

Erronketan proposamen ugari daude honako hauek bermatzeko:

- . Ezarritako bideak herritar guztiek ezagutzea.
- . Proposamen guztiek jasotzea erantzuna, arrazoituta eta garaiz.
- . Akordioak eta araudiak errespetatzea.
- . Betetzen ez denean, ondorioak izatea.
- . Memoria batean biltzea zer proposamen eta ekimen egin den, zer ibilbide izan duten, egiteke ote dauden eta abar.
- . Ordezlagarritasuna argitzea eta irizpideak aplikatzea partaidetzaren zenbait unetan.

- . Eraginkortasuna

Eraginkortasuna bilatzen da bide guztietatik, egunero partaidetzan egiten diren ahaleginak emaitza zehatzetan isla daitezen. Araudirako, bileretarako eta topaketetarako soiltasuna bilatzen da, baina baita ahalik eta eraginkortasunik handiena ere. Horrekin batera, egitura zurrunik soberan daudela aipatu dugu, beharrezkoa dela malgutasuna, eredia errealitatearen aldaketetara egokituz joan dadin.

Alde horretatik, presentziazko partaidetzaren osagarri teknologiak erabiltzea planteatu dugu.

- . Planifikazioa

Partaidetzak planifikazioa eskatzen du. Beharrezkoa da garatu nahi diren elementu guztiak adostutako plan batean jasotzea eraginkortasunez eta malgutasunez bete daitezen eta planak honako puntu hauek izan behar ditu:



- . Kudeaketa eta esku-hartze zehatzak
- . Prestakuntza
- . Egutegia prestatzea
- . Erantzukizunak
- . Hedapena eta komunikazioa
- . Ebaluazioa eta ebaluazioaren adierazleak
- . Beharrezko baliabideak
- . Tresna zehatzak (lantaldeak, jarraipena egiteko taldeak, etab.)

- . Ikusgai bihurtzea

Partaidetza interes orokorrekoa izango den egoera sortzea da helburua, hainbat bide erabiliko dituen informazio-estrategia eta komunikazio-estrategia on baten bidez, batez ere komunikabideen bidez, herritar guztiek jakin dezaten parte-hartzea zertarako balio izaten ari den eta parte hartzeko zer aukera eta bide zehatz duten.

Elkarteek udalerrinari egiten dioten ekarpena ere hedatu egin nahi dugu aitortza eta balio handiagoa jaso dezaten.

- . Eredua

Disoñamosek argitu digu partaideek planteatzen duten agertokiak hiru ardatz dituela:

- . Demokraziaren alderdi ordezkatzailari begiratzen diogu, hau da, azken batean, zinegotziek hartzen dituzte erabakiak herritarren ordezkari diren aldetik, baina baldintza batzuk betez: herritarren ekarpenekiko begirunea, gardentasuna eta proposamenak eta ekarpenak itzultzea.
- . Zenbait gai estrategikotan zuzeneko demokraziaren tresnetara jotzea planteatu dugu: kontsulta, erreferenduma, herri-ekimena eta abar.
- . Nabarmendu egin dugu elkarrizketaren dimentsioa; hau da, herritarrek sistematikoki politiken prestaketan, jarraipenean eta ebaluazioan ekarpenak egiteko modua izateko baliabideak eta tresnak erabilgarri izatea, entzungo dietela eta egindakoa aitortuko dietela jakinda.